

2018ko OTSAILEKO 14ko UDALBATZARRA

PLENO DE 14 DE FEBRERO DE 2018

BERTARATUAK / ASISTEN:

ALKATEA / ALCALDE: JOSU IRATZOKI AGIRRE

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES Y CONCEJALAS:

M^a ARANZAZU ZUBIETA OCHOTECO, AITOR ELEXPURU EGAÑA, MIKEL LERTXUNDI KORTA, AITOR IANTZI GOIENETXE, GERMAN CASTILLO LAZCANOTEGUI, JOSE MIGUEL GORRIA VICUÑA, JOSE ANTONIO OYARZABAL IRIBAS, JUAN LOSA OCARIZ.

IDAZKARIA / SECRETARIA: PILAR CHUECA INTXUSTA.

BERTARATU EZ DIRENAK / NO ASISTEN:

IXONE TELLECHEA URANGA (oporrak / vacaciones), RAQUEL QUIROGA TAPIA.

Tokia: BERAko Herriko Etxea

Eguna: 2018-02-15

Ordua: 19:35

Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia

Lugar: Casa Consistorial de BERA

Día: 15-02-2018

Hora: 19:35

Tipo sesión: ordinaria, 1^a convocatoria.

TRATATZEKO GAIAK:

ASUNTOS A TRATAR:

1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-

1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-

2018.eko urtarrilaren 17an egindako bileraren akta ikusirik, aho batez, ONARTU DUTE.

Vista el acta de la sesión celebrada el día 17 de enero de 2018, por unanimidad SE APRUEBA.

2.- SISTELEC SOLUCIONES DE TELECOMUNICACIONES S.L-ari HERRILURRA LAGATZEKO BALDINTZA PLEGUA ALDATZEA

2.- MODIFICACIÓN PLIEGO CONDICIONES PARA LA CESIÓN TERRENO COMUNAL A SISTELEC SOLUCIONES DE TELECOMUNICACIONES S.L.

Idazkariak espedientearen txostena laburtu ondotik, aho batez, legeak eskatutako gehiengo

La Secretaria resume el informe obrante en el expediente y, por unanimidad que representa

osoa betea izanik, honako erabaki hau hartu dute:

1995eko abenduaren 21ean Udalak eginiko bilera, Sistelec Soluciones de Telecomunicación sl enpresari lagatutako 100 m²tako herri-lurra, 6. poligonoa, 69. lur-zatia (lehen 339 C), legez-tatu zen.

Lagapen hau luzatzen joan da eta baldintza plegua ere aldatu egin du Udalak.

Azken baldintza plegua adostu zena 2009ko uztailaren 23an onartu zuen Udalak eta hila-bete horren 28an sinatu zuten.

Irailaren 22ko 1669/2009 Landa Garapenerako Zuzendari Nagusiak emandako Ebazpenaren bidez Sistelec Soluciones de Telecomunicación sl enpresari telekomunikazio ekipamendua instalatzeko 100 m²ko herrilurraren lur-zatia (6. P, 69. L) okupatzeko baimendu zion Berako Udalari 7 urtetarako epearekin, luzagarririk.

Herrilur hori lagatzeko aipatu baldintza pleguaren 2. baldintzari jarraikiz, 2016ko urtean Udalak indarrean zegoen komenioa salatu egin zuen eta lagapen hori arautzen duen baldintza pleguaren aldaketa batzuk negoziatzen hasi zen.

Hori dela eta, harreman batzuk izan ondoren 2009ko uztailaren 23an onetsitako baldintza plegua aldatzea adostu dute.

2017ko ekainaren 14ko datan, Udalak komenio berriaren testua onartu eta Nafarroako Gobernuaren Herri Lurrean Atalak baimentzeko bidali zuen, aurreko hitzarmena aldatzeko lehen egina zegoen moduan.

Atal horretako pertsonalarekin hitz egin

la mayoría absoluta legalmente exigida, adoptan el siguiente acuerdo:

En sesión realizada el 21 de diciembre de 1995 el Ayuntamiento legalizó la cesión de un terreno comunal de 100 m² (polígono 6, parcela 69, antes 339 C) a la empresa Sistelec Soluciones de Telecomunicación sl.

Esta cesión ha sido objeto de diferentes prórrogas y el pliego de condiciones se ha ido modificando también.

El último pliego de condiciones que se acordó fue aprobado el 23 de julio de 2009 por el Ayuntamiento y el 28 del mismo mes fue firmado.

Por Resolución 1669/2009, de 22 de septiembre, del Director General de Desarrollo Rural se autorizó al Ayuntamiento de Bera la ocupación de 100 metros cuadrados de la parcela comunal (P. 6, p. 69) para la instalación de equipamiento de telecomunicación a la empresa Sistelec Soluciones de Telecomunicación sl con un plazo de 7 años prorrogables.

De acuerdo a lo establecido en la condición 2^a pliego de condiciones para la cesión de dicho terreno comunal, en el año 2016 se denunció el convenio vigente y se iniciaron las negociaciones con la empresa citada para la modificación del pliego de condiciones que rige dicha cesión.

De este modo, después de diversos contactos han consensuado modificar el pliego de condiciones aprobado el 23 de julio de 2009.

Con fecha 14 de junio de 2017 el Ayuntamiento aprobó el texto del nuevo convenio y remitió a la Sección de Comunales del Gobierno de Navarra para su autorización, según tramitación realizada en la anterior modificación del convenio.

Por conversaciones telefónicas mantenidas con

ondoren, Udalarari jakinarazi diote hitzarmen berriaren testua herri lurra okupatzeko berria izango balitz bezala tramitatu behar dela.

Horregatik, ikusirik, Sistelec Soluciones de Telecomunicacion sl enpresak eta Udalak negoziatutako komenio berriaren testua, baldintza plegu berria duena eta espedientean dagoena.

Ikusirik, Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 322.1.a) artikuluari jarraikiz Idazkaritzak horri buruz eginiko txostena.

Legeak eskatutako gehiengo osoa izanik, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako komenio berriaren testua, Sistelec Soluciones de Telecomunicacion sl enpresari telekomunikazio ekipamendua instalatzeko 100 m²ko herrilurraren lurzatia (6. P, 69. L) okupatzeko baldintza plegu berria duena eta hemendik aurrera herrilur horren lagapena arautuko duena, hasiera batez onestea.

2) Espediente hau 15 lan eguneko epea jendaurrean jartzea.

3) Alegaziorik ez badago hasiera batez onartutako herri-lurra okupatzeko espedientea behin betiko bihurtuko dela eta espediente hau Nafarroako Gobernuari igorriko zaio behin betiko onospena egin dezala adieraztea.

4) Erabaki hau SISTELEC SOLUCIONES DE TELECOMUNICACIÓN S.L. enpresari bidaltzea. Aldi berean, adieraztea izapide-egintza denez ezin dela inolako errekursorik jarri.

3.- BERAKO “ARGITERI PUBLIKOA BERRITZEA” IZENENKO INBERTSIOAREN OBRA PROIEKTUA, ETA FINANTZA

el personal de dicha sección, se le ha comunicado al Ayuntamiento que el texto del nuevo convenio debería tramitarse como si fuera una nueva ocupación de terreno comunal.

Por ello, visto el texto del nuevo convenio negociado entre el Ayuntamiento y la empresa Sistelec Soluciones de Telecomunicación sl, que contiene un nuevo pliego de condiciones y el cual consta en el expediente.

Visto informe de Secretaría emitido al efecto según lo establecido en el artículo 322.1.a) de la Ley Foral 6/1990 de Administración Local.

Con el quórum de mayoría absoluta, legalmente requerido, SE ACUERDA:

1) Aprobar inicialmente el nuevo texto del convenio que contiene el pliego de condiciones citado que regulará, en adelante, la ocupación de 100 metros cuadrados de la parcela comunal (P. 6, p. 69) para la instalación de equipamiento de telecomunicación a la empresa Sistelec Soluciones de Telecomunicación sl.

2) Someter a información pública el expediente durante el plazo de 15 días hábiles.

3) Señalar que si no hubiera alegaciones la aprobación inicial del expediente de ocupación de terreno comunal pasará a aprobación definitiva y se remitirá el expediente al Gobierno de Navarra para su autorización.

4) Remitir este acuerdo a la empresa SISTELEC SOLUCIONES DE TELECOMUNICACIÓN S.L., indicándole que por tratarse de un acto de mero trámite no cabe recurso alguno.

3.- APROBACIÓN PROYECTO DE OBRAS Y PLAN FINANCIERO DE LA INVERSION DENOMINADA “RENOVACIÓN DE

PLANA ONESTEA.

Alkateak gaia azaldu eta Idazkariak prozedura, horren ondotik, aho batez, honako erabakia hartu dute:

Azaroaren 6ko 448/2017 Toki Administrazio Zuzendari Nagusiak emandako Ebazpenaren bidez, 2017-2019 aldirako Toki inbertsioen Planean, argiteria publikoaren atalaren barnean sartzen ahal zen Berako Udalaren inbertsioa, “Argiteri publikoa berritzea” izenekoa, besteen artean, onetsi zuen.

Aipatu 448/2017 Toki Administrazio Zuzendari Nagusiaren Ebazpenaren 5. puntuari jarraikiz, 2017rako eta 2018rako inbertsioak jasotzen dituen toki entitateek, ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabeteko epean, abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legearen IV. Eranskinetako 4. atalean adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute. 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen du Foru Lege horrek.

18/2016 Foru Legearen IV. eranskinetako 4. atalean adierazitako dokumentazioa, bai inbertsioaren exekuzio proiektua zein inbertsio horren finantza plana Osoko bilkurak onetsi behar ditu.

Aipatu inbertsioa finantzatzeko, Toki Inbertsioen Planari dagokion diru-ekarpenaz gain Diruzaintzako Gerakinetik 121.074,84 eurotako diru-ekarpina egin behar da zeina Osoko bilkurak inbertsio honi lotu behar dion.

Hori dela eta, aurrekoa ikusirik ERABAKI DUTE:

1) “Berako kanpoko argiteria publikoaren Urruña eta Bidasoako koadroak berritzea” izeneko obra proiektua onestea, Carlos Ros Zuasti ingeniari industrialak egina, 2018ko otsailekoa. Proiektu honetan 2017-2019 aldirako Toki inbertsioen Planean, argiteri publiko

ALUMBRADO PÚBLICO” DE BERA.

El Alcalde explica el asunto y la Secretaria el procedimiento, tras ello, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Por Resolución 448/2017, de 6 de noviembre, del Director General de Administración Local se aprobó, entre otras, la inversión del Ayuntamiento de Bera “Renovación de alumbrado público” susceptible de ser incluida en el Plan de Inversiones Locales 2017-2019, dentro del apartado de Programación Local relativo al alumbrado público.

De conformidad con el punto 5º de la citada Resolución 448/2017 del Director General de Administración Local, las entidades locales con inversiones en el 2017 y 2018, deberán presentar en el plazo de tres meses a partir de la publicación en el Boletín Oficial de Navarra de la presente Resolución, la documentación señalada en el número 4 del Anexo IV de la Ley Foral 18/2016, de 13 de diciembre, reguladora del Plan de Inversiones Locales 2017-2019.

La documentación señalada en el número 4 del Anexo IV de la Ley Foral 18/2016, tanto el proyecto de ejecución como el plan financiero, debe ser aprobada por el Pleno.

Para la financiación de la inversión señalada se contempla, además de la aportación correspondiente del Plan de Inversiones Locales, la cantidad de 121.074,84 euros a aportar del Remanente de Tesorería, cantidad que debe ser afectada a esta inversión por el Pleno.

Teniendo en cuenta lo anterior, SE ACUERDA:

1) Aprobar el proyecto de obras de “Renovación de los cuadros de Bidasoa y Urruña del alumbrado público exterior de Bera” que contiene la inversión denominada “Renovación de alumbrado público” del Ayuntamiento de Bera, susceptible de ser incluida en el Plan

atalaren barnean sartzen ahal zen Berako Udalaren inbertsioa, “Argiteri publikoa berri-tzea” izenekoak, sartua dago.

2) Lehen aipatu inbertsioa finantzatzeko Diru-zaintzako Gerakinetik 121.074,84 eurotako diru-ekarpena lotzea.

3) Inbertsio honetarako 2018ko otsailaren 7ko finantza plana, espedientean dagoena, onestea.

4) Erabaki hau eta orain onetsi den dokumentazioarekin batera Nafarroako Gobernua-ren Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuaren Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiari bidal-tzea, behar diren ondorioetarako.

4.- ALTSASUKO GAZTEENGATIK MANI-FESTAZOARI BURUZKO MOZIOA.

Alkateak irakurri du mozioaren testua eta horren ondotik, honako adierazpenak izan dira:

Juan Losa zinegotziak:

Tristura ematen dio 8 pertsona borrokatzen, jende gaztea, gaixorik egon behar dira. Gauzak parlamentuetan defendatu behar dira. Berak kritikatzeko du edozein kasutan, polizia denean ere, jendea hezi behar da, ezker abertzaleak gauza asko azaldu behar du. Eskatzen dute laguntza baino ez dute errekonozitzen egin zutena.

Jose A. Oyarzabal zinegotziak bere absten-tzioa iragarri du.

Aitor Iantzi zinegotziak:

Oraindik ez dute sententziarik.

de Inversiones Locales 2017-2019, dentro del apartado de Programación Local relativo a alumbrado público redactado por el Ingeniero industrial Carlos Ros Zuasti de fecha febrero de 2018.

2) Afectar la cantidad de 121.074,84 euros del Remanente de Tesorería para la financiación de la inversión antes reseñada.

3) Aprobar el plan financiero de esta inversión de fecha 7 de febrero de 2018, obrante en el expediente.

4) Remitir este acuerdo junto con la docu-mentación ahora aprobada a la Dirección Ge-neral de Administración Local del Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local del Gobierno de Nava-rra, a los efectos oportunos.

4.- MOCIÓN SOBRE MANIFESTACIÓN POR LOS JÓVENES DE ALTSASU.

El Alcalde lee el texto de la moción y, tras ello, se producen las siguientes intervencio-nes:

Juan Losa, concejal:

Le producen tristeza 8 individuos en pelea, gente joven, deben estar enfermos. Las cosas hay que defender en los parlamentos. El critica, en cualquier caso, cuando es la policía también, hay que educar a la gente, la izquierda abertzale tiene que explicar muchas cosas.

Piden ayuda pero no reconocen lo hecho.

El concejal José A. Oyarzabal anuncia su abstención.

Aitor Iantzi, concejal:

Todavía no tienen sentencia.

Ez da tratatzen berdin Cuencan balitz, Iruñean juzkatu behar dituzte.

Josu Iratzoki, Alkateak:

Ostatutako borroka izan zen eta Guardia Zibilak, komunikabide interesatuek eta alderdi politikoeak terrorismo arlora eramen dute.

Hau eredu garbia da Justiziak nola funtzionatzen duen.

Juan Losa zinegotziak:

Egin badute zigorra bete behar dute, ez dago ados 50 urte eskatzeagatik.

Josu Iratzoki, Alkateak:

375 urteko kartzela eskatzen dizkiete orkatila bat lesionatzeagatik.

Bozketa egina, honako emaitza atera da:

Aldeko boto: 7 (5 EH Bildu, 2 Herrirako)

Aurkako boto: 1 (UPN).

Abstentzio: 1 (Herrirako)

Beraz, mozioa onartu dute, honako testua izanik:

Justifikazioa:

2016ko ferien bezperan, urriaren 15ean jasotako gertakariak direla, eta aurtengo apirilaren 16an Audientzia Nazionalean izango den ahozko epaiketaren atarian gaudenean, gure kezkarik handiena aurkeztu nahi dizuegu Altsasuko 8 gazteri ezartzen ari zaien neurrigabeko prozedura judizialarengatik. Gazte horientzat 375 kartzela-urte eskatu dituzte gertakariak terrorismo delitutzat kalifikatu dituztelako; horietako, hiruk, gainera, prebentziozko presondegian 400 egun baino gehiago daramate Madrilgo hainbat espetxetan.

Azpimarratu behar dugu 2017ko martxoaren 23an Nafarroako Probintzia Auzitegiak helegitea ebatsi zuela. Kaleratutako autoan honakoa adierazi zuen: “ez zeudela arrazoizko zantzurik ustezko terrorismo delitua gertatu zela ondorioztatzeko”. Horren ondorioz, epaiketa Nafarroan egitea eskatu zuen.

No se trata igual si es en Cuenca, deben ser juzgados en Iruñea.

Josu Iratzoki, Alcalde:

Se trata de una pelea de bar y la Guardia civil, medios de comunicación interesados y partidos políticos lo han llevado a terrorismo.

Este es un claro ejemplo de cómo funciona la Justicia.

Juan Losa, concejal:

Si lo han hecho tienen que cumplir, él no está de acuerdo con la petición de 50 años.

Josu Iratzoki, Alcalde.

Les piden 375 años de cárcel por lesión en un tobillo.

Realizada la votación, resulta lo siguiente:

Votos a favor: 7 (5 EH Bildu, 2 Herrirako)

Votos en contra: 1 (UPN)

Abstenciones: 1 (Herrirako)

Por lo que aprueba la moción, siendo el texto el siguiente:

Justificación:

Con relación a los hechos acaecidos el 15 de octubre, en las ferias de Alsasua de 2016, y a las puertas del inicio del juicio oral en la Audiencia Nacional el día 16 de abril, queremos mostrar nuestra honda preocupación por la desproporción que está adquiriendo el proceso judicial que se sigue contra ocho jóvenes de nuestra localidad. Estos jóvenes se enfrentan a una petición de prisión que suma 375 años y a una calificación de los hechos como delito de terrorismo; y tres de ellos llevan más de 400 días en prisión preventiva alejados en centro penitenciarios de Madrid.

Debemos subrayar que la Audiencia Provincial de Navarra, en Auto del día 23 de marzo de 2017, por un lado, argumentó sólida y extensamente que “no nos encontramos con indicios racionales que nos pongan de manifiesto la comisión de un presunto delito de terrorismo”, y por otra parte, solicitó que la

Nabarmendu nahi dugu ere, Barne Ministerioko iturrien arabera 9.571 atentatu kasu kontabilizatu zirela 2016an. Horietatik, terrorismo atentatu gisa kalifikatu den lehenengoa eta bakarra Altsasukoa izan da.

Agerian jarri nahi dugu ere, denbora tarte luze honetan oinarritzko hainbat eskubide urratu direla, hala nola: errugabetasunaren printzipioa, epaile naturala eta inpartziala izateko eskubidea, eta, besteak beste, defentsarako eskubidea. Abokatuak salatu dute instrukzio epaileak akusazioaren bertsioa baino ez duela aintzat hartu. Horrez gain, ez du egile neutral batek egin akusazioaren txostena, kausan parte duen Guardia Zibilak baizik. Horrez gain, komunikabideek epaiketa paraleloa egin dute gure herriaren errealitatea desitxuratuz. Gauzak horrela, zuzenbidean adituak diren juristek adierazi dute legeen gehiegizko erabilera baten aurrean gaudela, NBEko Giza Eskubideen errelatoreek aurrez salatu izan duten bezala. Gainera, defentsari ukatu dizkiote proposatutako proba ia gehienak: testiguak, dokumentuak eta perizialak.

Prozesu honek guztiak izan duen bilakaera ikusita ondorioztatzen dugu geratutakoak larriki kaltetzen dituela gizarte demokratiko eta Zuzenbide Estatu batek gidatu beharko lituzkeen oinarritzko printzipioak, eta hondatzen duela hiritarrak babestu beharko lituzkeen segurtasun juridikoa.

Hori dela eta, udal batza honek honakoa ADOSTEN DU:

1. Berako Udalaren osoko bilkura atxikitzen da Iruñean apirilaren 14an 17:30ean deituriko manifestazio deialdira, “Altsasu Gurasoak” eta “Altsasukoak Aske” plataformak elkarrekin deitu dutena. Manifestazio horrek giza

causa se juzgará en un tribunal navarro.

Cabe resaltar que, según fuentes del Ministerio de Interior, durante el año 2016 se contabilizaron 9.571 casos de atentados contra la autoridad, y este caso de Alsasua constituye la primera vez que se aplica la calificación de terrorismo a hechos de este tipo.

Por otra parte, a lo largo de este proceso se han vulnerado derechos fundamentales como la presunción de inocencia, el derecho al juez natural e imparcial, el derecho a la defensa... Las abogadas han denunciado que las únicas versiones consideradas por la juez instructora han sido las de las acusaciones. La elaboración de los informes acusatorios no ha recaído en un agente neutral, sino en la Guardia Civil que es parte en esta causa. Se ha realizado un juicio paralelo en los medios de comunicación, tergiversando la realidad de todo un municipio. Según reputados juristas, estamos ante un uso retorcido, extensivo y abusivo de las leyes, que en su día ya fue criticado por Relatores de Derechos Humanos de la ONU. Además, a la defensa se le han denegado prácticamente la totalidad de las pruebas testificales, documentales y periciales.

Considerando que el devenir que ha adquirido este proceso lesiona gravemente los principios básicos que han de regir una sociedad democrática y un Estado de Derecho, y deteriora la seguridad jurídica que debe proteger a toda la ciudadanía,

El Pleno de este Ayuntamiento ACUERDA:

1- El pleno del Ayuntamiento de Bera se adhiere a la convocatoria de manifestación, convocada por las familias afectadas agrupadas en “Altsasu Gurasoak” y la asamblea popular “Altsasukoak Aske”, para el próximo 14 de

eskubideen, askatasunaren eta berme demokratikoen aldeko konpromisoa erakusteko asmoa du.

2. Herritarrei manifestazioan parte hartzeko deia egiten die Udal honek.

3. Akordio hau Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari jakinaraziko dio udal honek, eta parte hartzeko gonbidapena luzatuko die tokian tokiko erakunde guztiei, hala nola bat egin dezaketen bestelako erakundeei ere.

4. Hartutako akordioa hau komunikabideei eta antolatzaileei (Altsasu Gurasoak eta Altsasukoak Aske) jakinaraziko die.

5.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-

Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:

1) Bandoak: B2/2018tik B3/2018ra.

2) Ebazpenak: 2018ko urtarrilaren 16ko 7. ebazpenetik 2018ko otsailaren 6ko 16.era arte.

Gai zerrendatik kanpo, premiazko bozketa egin ondoren, aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa betea izanik, honako gai hau tratatu dute:

6.- SK2ko UE9ko 7. LURZATIAN (9. P, 419. L KAXERNAGAINA) HIRI-JARDUKETA-KO PLAN BEREZIA, BEHIN BETIKO ONESTEA: -----.

Idazkariak espedientearen prozedura azaldu du eta, aho batez, honako erabakia hartu dute:

abril a las 17:30 en Pamplona, con el objeto de demostrar un compromiso por los derechos humanos, las libertades y las garantías democráticas.

2- Este Ayuntamiento, llama a las vecinas y vecinos de Bera a participar en dicha manifestación.

3- Este Ayuntamiento, notificará este acuerdo a la Federación Navarra de Municipios y Concejos, e invita a todas las entidades municipales e instituciones que así lo consideren, a sumarse a esta iniciativa.

4- Este Ayuntamiento dará cuenta de este acuerdo a los medios de comunicación y a las entidades convocantes (“Altsasu Gurasoak” y “Altsasukoak Aske”).

5.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-

Quedan enteradas y enterados de los siguientes bandos y resoluciones de Alcaldía:

1) Bandos: del B2/2018 al B3/2018.

2) Resoluciones: De la resolución nº 7 de 16 de enero de 2018 a la nº 16 de 6 de febrero de 2018.

Fuera del orden del día, previa votación de urgencia, por unanimidad, que representa la mayoría absoluta legalmente exigida, se trata el siguiente asunto:

6.- APROBACIÓN DEFINITIVA PLAN ESPECIAL DE ACTUACIÓN URBANA SECTOR SK2, UE9, PARCELA 7, (P. 9, p. 419 KAXERNAGAINA): -----

La Secretaria explica el procedimiento del expediente y, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Ikusirik, UE9ko 7. lur-zatian (9. poligonoko 419. lur-zatia, Kaxernagaina) Hiri-Jarduketako Plan Bereziaren espedientea, -----sustatua.

Dokumentazioa: Hiri-Jarduketako Plan Berezia, SK2 sektorea, UE9 egikaritze unitatea, 7. lur-zatia, -----egina, 2017ko abendukoa.

1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 7. artikulua ezarritako Herritarren parte hartzea egin ondotik (Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina).

2018ko abenduaren 20an Tokiko Gobernu Batzordeak espediente hau hasiera batez onartu zuen.

Jendaurreko epean ez dute alegaziorik aurkeztu.

Ikusirik, 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 72.3. artikuluari jarraikiz, (Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina), Nasuvinsak eginiko txostena, 2017ko azaroaren 23koa.

Ikusirik, Idazkaritzak 2017ko abenduaren 14an egindako txostena.

1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 77.3. eta 6., 72. eta 79.1. artikuluekin bat etorriz, (Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina).

ERABAKI DUTE:

1) UE9ko 7. lur-zatian (9. poligonoko 419. lur-zatia, Kaxernagaina) Hiri-Jarduketako Hiri-Jarduketako Plan Berezia, lehen adierazitakoa, ----- sustatua behin betiko onestea.

2) Behin betiko onespén hau bai, eta haien

Visto expediente del Plan Especial de Actuación Urbana en Sector SK2, UE9, parcela 7 (polígono 9, parcela 419, Kaxernagaina) promovido por -----.

Documentación: Plan Especial de Actuación Urbana, Sector SK2, Unidad de ejecución UE9, parcela 7, redactado por G.A.C. Arquitectura Bulegoa, de fecha diciembre de 2017.

Realizado el Plan de participación ciudadana establecido en el artículo 7 del Decreto Foral Legislativo 1/2017 (Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo).

Con fecha 20 de diciembre de 2017 la Junta de Gobierno Local aprobó inicialmente este expediente.

En el plazo de exposición pública no se ha presentado alegación alguna.

Visto informe de Nasuvinsa de 23 de noviembre emitido de conformidad con el artículo 72.3 del Decreto Foral Legislativo 1/2017 (Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo).

Visto informe de Secretaría de 14 de diciembre de 2017.

De acuerdo con lo establecido en los artículos 77.3 y 6, 72 y 79.1 del Decreto Foral Legislativo 1/2017 (Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo).

SE ACUERDA:

1) Aprobar definitivamente el Plan Especial de Actuación Urbana en Sector SK2, UE9, parcela 7 (polígono 9, parcela 419, Kaxernagaina), antes referenciado, promovido por el -----.

barreneko hirigintza arauak ere, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3) Erabaki hau nahiz onartutako Udal Hiri-Jarduketako Plan Berezi honen ale bat eta emandako txosten teknikoak Nafarroako Gobernuko Lurralde eta Paisaia Zerbitzuari bidaltzea, hamar eguneko epean gehienez ere.

7.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEEN KONTROLA.

Ez dira burutu.

Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 20:15etan.

O.E. ALKATEA/ V.B. EL ALCALDE
Josu Iratzoki Agirre

2) Publicar en el Boletín Oficial de Navarra esta aprobación definitiva, así como las normas urbanísticas contenidas en ella.

3) Trasladar este acuerdo junto con un ejemplar de la modificación aprobada e informes técnicos emitidos al Servicio de Territorio y Paisaje del Gobierno de Navarra, en el plazo máximo de 10 días.

7.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.

No se producen.

No habiendo más asuntos, el Alcalde levanta la sesión a las 20:15 horas.

IDAZKARIA/ LA SECRETARIA
Pilar Chueca Intxusta